

# XEDAPEN OROKORRAK

## LEHENDAKARITZA

### 1382

*36/2014 DEKRETUA, martxoaren 18koa, Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko beka arautzeko den dekretua aldatzen duena.*

Uztailaren 26ko 172/2011 Dekretuaren bitartez, Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko beka arautu ziren, eta 24 hilabeteko iraupena eman zitzaion beka horiei.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak egiaztatu du komenigarria dela oraingo hiru zuzendaritzek eskaintzen dituzten beka araubidea bateratzea etorkizun hurbilean, eta ildo horretan, idazkaritza nagusi horri iruditzen zaio Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko beka iraupena eta diru-zenbatekoa murriztu egin behar direla oraingo hogeita lau hilabeteetatik hamabi hilabetera.

Horren ondorioz, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.c) artikuluan, eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko martxoaren 18an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Aldatu egiten da uztailaren 26ko 172/2011 Dekretuaren 2. paragrafoa –Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko beka arautzen ditu dekretu horrek–. Honelako idazketa izango du paragrafo horrek:

«2.– Bekek hamabi hilabete iraungo dute. Bekaduna hasten den egunetik aurrera hasiko da kontatzen epea; esleipen ebazpenean zehaztuko da bekaduna noiz hasiko den».

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko martxoaren 18an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.